

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Udalan hutsik dauden lanpostuak betetzeko merezimendu-lehiaketa. 5001 kodea duen postua, Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune buruarena**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 21ean hartutako Erabakiaren bidez deitu zen Audio Udaleko Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune buruari dagokion lanpostua, 5001 kodea duena betetzeko merezimendu-lehiaketa. Lehiaketa amaitu ondoren, 2020ko martxoaren 30eko 37. ALHAOn argitaratu da alkate-udalburuak 2020ko abuztuaren 28an 1661 zenbakidun Dekretuaren bidez esleitu zaio lanpostua Xabier Txabarri Lekue karrerako funtzionarioari.

Ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan utzi beharko da atxikitako lanpostuko kargua.

Lanpostu berriaren jabetza hartzeko data kargua utzi eta hurrengo eguna izango da.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da ebazpena eman duen organoaren aurrean; hilabeteko (1) epea dago horretarako, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Ez bada ipintzen goian aipatu den aukerako berraztertze-errekurtsoa, irekita geratuko da auzibidea eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Gasteizen, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian; bi (2) hilabeteko epea dago horretarako, ebazpen honen jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eta hori guztia ematen da aditzera, indarrean dagoen legedia betetzeko.

Laudion, 2020ko irailaren 1ean

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*